

Gorka Espiau

# «Herri honek alderdien arteko mahaia behar du frustrazioan ez erortzeko»

Bilbo. 1972. Algortarra da. Elkarri-n aritu zen. Ondoren, AEBetara joan zen Euskal Herriko gatazken ezagutza hobeto sakontzeko eta zabaltzeko. Handik bueltan, Ibarretxeren Eusko Jaurlaritzako bake politikarako aholkulari jardun zuen. Berrikuntza sozialean ari da egun.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gotzon Elizburu

PLUJA SECA/LLUVIA SECA (EURI LEHORRA) dokumentalaren zuzendaria da gure solaskidea. Kataluniako TV3ren laguntzaz ekoiztutako lana da. Gorka Espiauk, gatazken ebazpenetan aritua, gatazken konponketetan diharduten nazioarteko bitartekariak bildu ditu dokumental honetan. Honetaz eta iragan berri diren udal eta foru hauteskundeen osteko giroaz egin dugu berba algortarrarekin.

Ipar Irlandan euri lehorra lurrintzen da azalean sartu aurretik, Euskal Herrian aldiz, zirimiriak blaitzen du gorputza. Horra zure dokumentala ilustratzen duen metafora.

Bai. Metaforak balio izan dit Hegoafrika, Irlanda eta Euskal Herriko lurralde ezberdinetako gatazka lotzeko. Noski, metafora guztiak bezala, metafora honek ere ez dauka erabateko gaitasuna errealitatea osoro irudikatzen. Halere, hiru lurraldeen arteko loturak azaltzea lortu dugu, baita ezberdintasunak ere. Metafora ez da hitz joko bat. Adibidez, Irlandak eta Euskal Herriak ez dutela zer ikusirik entzuteaz aspertuta nago. Argi dago egoera ezberdinak direla, testuinguruak ezberdinak direlako, baina kontua egoera bietatik ikastea da. Irlandarrak eta euskaldunok ezberdinak gara, ados, baina azken hamar urteetan gure arteko ezagutza handiagoa da harremanak ere sakonagoak direlako. Giza historia egoera ezberdinak aztertuz eta bakoitzetik ikaspen kritikoak eginez garatu da.





**“Ezker abertzaleak beste bide bat hartu du. Baina, kontuz, ezker abertzaleak protagonismoa berreskuratu duenez, baliteke Espainiako Gobernuak protagonismoa hartu nahi izatea eta bi aldean arteko argazkia lortzen ahalegintzea”.**

**Zerk definitzen du Euskal Herriko gatazka politikoa? Zein dira bere ezaugarri bereizgarriak?**

Ezaugarri asko daude, baina uneon elementu sinbolikoa azpimarratuko nuke. Munduan, gaur gaurkoz, gatazka etno-politikoak dira azpimarragarrienak, elementu etnografiko politikoek definitzen dituzten komunitateak dira gureak. Gure kasuan, ordea, egoera bestelakoa da. Gure gizarte anitzean elementu sinbolikoak dira inportanteenak. Eta, batzuetan, horregatik da hain zaila gatazka zer den azaltzea: elementu sinbolikoen, itxuraz, konpontzeko errazagoak dirudite, baina justu kontrakoak da. Elementu sinbolikoak negoziatzea eta horien gainean gutzizko konponketa lortzea ia ezinezkoa da. Elementuak ukigarriak direnean “zuretzat zazpi eta niretzat lau” ebatzi dezakegu. Sinbologia ezin da zatikatu ordea. Gure kasuan hori da elementurik inportanteena.

**Pluja seca** Brian Currinen adierazpekin hasten da eta berarekin bukatzen. Bere bitartekaritza lana da dokumentalaren ardatza beharbada. Bai eta ez. Brian Currini buruzko

dokumentala ez egiten saiatu gara, alegia. Hasieran arrisku hori ikusi genuen. Brian Currin hedabideetan dago sarritan, gauza oso inportanteak lortzen ari da eta erraza zen ildo horretatik joatea. Guretzat benetan garrantzitsua guk zabaldu-tako ildoari ekitea zen ordea. Paul Riosek dioenez, bitartekari –edo *fazilitadore*– asko aritu dira prozesuetan, eta ziur aski, batzuk Brian Currin baino hobeagoak izan dira, baina bera prozesuen une gakoetan egon da. Gurean bera da ezker abertzalean gatazka modu positiboa bideratzea lortu duena. Bere lanaz iritzi ezberdinak –positiboak eta negatiboak– izan arren, lan hori onartu eta eskertu behar zaio. Ezin dira azken bi urteotan izan diren aldaketak ulertu bere ekarpena kon-tuan hartu barik. Dokumentalean hori azaltzen saiatu gara. Eta horrek ez du esan nahi bere lan guztia hobesten dugula. Guk konstelazio konplexua den gatazken argazki globala atera nahi izan dugu.

**Badago gatazka bat ebatzea nazioar-teko bitartekarien lanik gabe?**

Ziur aski, bai. Hipotesi bezala bai,

baina prozesua aberastu ahal badugu horien esperentziarekin, zergatik ez egin? Gainera, gaurko munduan barruko eta kanpoko dinamikak ez dira duela hoge urteko berak. Uneon dena da lotuta. Euskal Herrian gertatzen dena Europako Parlamentuko batzordeekin lotuta dago, eta Espainian gertatzen dena mundu osoarekin ere bai. Gurean gertatzen dena barruko arazo bat dela esatea, joan den mendeko ikuspuntu eta iritzia da.

**Zein da bitartekari on baten soslai?**

Harold Good apaiz protestanteak oso ondo azaltzen du hori dokumentalean: beraien lana Ipar Irlandan tea prestatzea izan zela dio, esparrua antolatzea jende ezberdinen arteko elkarrizketa posible egin ahal izateko. Horiek dira benetako bitartekariak. Eta ez zer egin behar den esatera datozenak, edo argazkian ateratzeko izugarritzko gogoia dutenak. Horiek askotan agertzen dira, aktore moduan agertu ere, arriskutsuak dira. Bitartekariaren xede nagusia baldintzak sortzea da, benetako protagonistak –eragileak– parez pare jartzea arazoa eztabaidatzeko.

**Eragileak eragile, dokumentalean PPko Lepoldo Barredarena liteke nota “diskordanteena” akaso.**

Bagenekien Barredak diskurtso horri eutsiko ziola, eta hori nahi genuen. Diskurtso hori gure gizartean dago, eta argi eta garbi azaltzea hobe. Gainera, sartu ditugun zatiak dokumentalaren tesiaren kontra doaz, eta hori beharrezkoa da, begirada zorrotz eta kritikoa. Bere ekarpena oso inportantea da, argi eta garbi agertzen delako PPre iritzia.

**PSOeko Jose Antonio Pastorrena berriz?**

Pastorren diskurtsoa anitzagoa da, zati ezberdinak ditu, batzuk gogor-ragoak beste batzuk baino, baina saiatu gara ez sinplifikatzen. PSOE-ren diskurtsoan badaude ere Barredaren iritziak, gure esfortzua alderdi sozialistaren ñabardurak sartzea izan da. Gustura geratu gara.

**Ezker abertzalearenak dira nota berriak.**

Bai. Ezker abertzalearen inguruan gauza bitxia gertatu zen. Rufi Etxeberriarekin grabatu genuenean,

berak dioena Radio Euskadin esan zuen geroago. Eztabaida eta zalaparta zabaldu zen gizartean, eta guk ordurako egina genuen elkarrizketa. Bagenekien iritzia berria zela, grabatu genuenean “bonba” bat zen. Dokumentala plazaratu zenerako ezaguna zen. Ezker abertzalearen diskurtso berria Rufik esatea esanguratsua da. Espainiako Gobernuaren eta ETArekin arteko elkarrizketetan izan baitzen Ginebran, baita Jonathan Powell ere. Biak ala biak dokumentalean azaltzea inportantea da.

### Beste batzuk falta dira agian.

Bai, dokumentalari kritika egitekoan, ez daudenengatik da. Aralar, EA, EB eta Alternatibako ordezkariak ez egoteagatik, alegia. Baina hori dokumentalen arazoa da. Hau egiteko hamar elkarrizketa behar ziren, bestela arazoak izango genituela bagenekin. Halere, hogeitahiru elkarrizketa egin genuen. Iritzi inportanteenak nazioartekoak ziren, ez Euskal Herrikoak. Oreak lortzea oso zaila izan da, ziur aski, hori denborarekin ikusten duzu garbiago. Aralarrekoen lekukotasuna azalduta hobeto izango zen, ezker abertzalearen bilakaera ondo azaltzeko. Hori da nire arantza.

### Dokumentala alde batera utziz. Zer egoera bizi du balizko bake prozesuak, udal eta foru hauteskudeen ostean? Nola eragiten du une honetako giro politikoak normalizazio prozesuan?

Hauteskuendek –ez bakarrik, baina batez ere hauteskuendek– islatu dute errege biluziaren istorioa. Hau da, azken urteetan gure herriaren kontakizunak fikziozkoa zirudien. Narrazioan erregea biluzik agertzen zen, erregea esatean herria esan nahi dut. Erregea biluzik zegoen eta inork ez zuen ezer esaten. Eta zerbait esaten bazenuen erradikala zinen. Alegia, biolentziarekin lotura zuzena islatzen zenuen. Inork ezin zuen erregea biluzik zegoela esan. Hauteskuendek islatu dute erregea erabat biluzik zegoela. Eta orain denok diogu: hara egia zen!

### Denok...

Beno, gure herria ez zela azken bizpahiru urteetan gizartean islatzen zen bezalakoa denok genekien, baina, salbuespenak salbuespen, denok oroko-

rrean “onartu” genuen (era figuratiboan ari naiz, legez kanpo zeudenek ez, noski) fikziozko herri bat ari zela gauzatzen, gainera ezin zen ezer esan. Hauteskuendek hori aldatu dute, eta aukera eman dute normalizazio politikan nahiz eta politika orokorrean bide berriak urratzeko.

### Bilduren edo ezker abertzalearen emaitzak oso onak izan dira.

Bai. Baina emaitza politikoak ez dira onak edo txarrak berez, izango dira onak baldin ondo erabiltzen badituzte. Objektiboki hobea da oraingo argazkia, erreala baina, eta horrekin jokatu behar da. Batzuek esango dute ez dela benetakoa, fenomeno gaseoso dela. Baina argazkia erreala da inondik inora ere.

### “Konstelazio konplexua den gatzak argazki globala atera nahi izan dugu *Pluja secan*”

### PP eta PSOEkoen iritziez ari zara.

Bai, beren erreakzioak erregearen kontakizunaren frogarik garbiena izan dira. Alderdi horiek emaitzak gauza arraro bezala hartu dituzte, Espainian batez ere. Adibidez, Odon Elorzak Donostiako Udala galdu du eta: “Nola ote hori?” “Eta Bilduk irabazi du, gainera”. Benetan harritzen nauena da, herri honetan bizi, eta badago dioena ezker abertzalea mundu honetatik kanpo bizi dela. Ziur aski gai batzuetan egia da, baina PP eta PSOE ere antzean bizi dira orduan. PP eta PSOE beste galaxia batean daudela ematen du, iragan

hauteskudeen ostean euren adierazpenak entzunda. Hau da, ez al ziren ezker abertzalearen ilegalizazioarekin sortutako giroaz ohartu? Harrigarria benetan. Ez bakarrik sektore horietan, EAJko sektore batzuek ere irakurketa hori egin dute nolabait. Bilduren emaitzek harritu dituzte.

### Uste al duzu hasiko direla denak egoera berriaz ohartzen?

Bai, errealitateak agintzen du. Erregearen fikzioa mantendu daiteke, baina errealitateak agintzen du. Fikzio hori mantendu daiteke bizpahiru, bost eta hamar urtez, baina une batera ailegatuta... Baina hori bera ere gertatu zaio ETARI: ETA saiatu da iraganeko errealitateari eusten, baina ailegatu da une bat non, egun batetik bestera, izugarriko aldaketa eman den ezker abertzalean. Egundako ezker abertzaleak planteatzen duena Lizarra-Garaziko Akordioaren garaian bere gain hartu izan balu, zer izango zen egungo egoera, ezta? Izugarria. Fikzio argazki bat mantentzen saiatu dira, baina halako batean, ezker abertzale zeharo ezberdin bat gailendu da. Bistan da, ezker abertzale honek lotura gehiago dauka errealitatearekin.

### ETAk, bien bitartean, ez du behin betiko su-etena iragarri. Gernikako Hitzarmena eta Bruselako Akordioa dauzka mahai gainean.

ETArekin zer gertatuko den jakitea zaila da erakunde konplexua delako, aterabidea aurkitzea zail izango da. Paul Riosek dioenez, oraingo abaguneak ETARI kontakizun erreala baina bat egiteko aukera eman dio, amaiera duina bilatzeko. ETArekin zer



*Esкура ezazu teorikoa 5 egunetan edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

[www.solozabalautoeskolak.es](http://www.solozabalautoeskolak.es)



**LUARkitektoak**

hirigintza  
nirigintza  
aholkularitza  
udal planak  
urbanizazioak  
perifazioak  
balorazioak  
etxebizitza proiektuak  
birgaitzeak  
barne diseinua...

Tel 948 13 26 97  
lua@luark.com

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña

gertatuko den? Nik ez daukat gaitasunik gertatzen ari dena jakiteko, baina politikoki garrantzizkoena fokua politika soilan egotea da, eta jendeak politika egin nahi du bide soilik baketsutik.

### Non dago arriskua edota gakoa?

Ezker abertzaleak orain arte izan duen jarrera errepikatzea litzateke arriskutsua. Hau da, iraganean ere hauteskudeetan emaitza onak lortu izan dituen arnasa hartu du, eta bere ingurukoak ez ditu ondo tratatu, bere jarrerak inposatzen segitu du. Hori ez errepikatzea da gakoa, ezker abertzale berria ikustea eta ez antzinako jarrerak errepikatzea —ez naiz ari biolentziari buruzko jarreraz, baizik eta jarrera politikoaz—. Aralarrekin daukan harremana nola garatuko duen testa izango da. Batzuen ustez, Aralarren bidea akatsa izan da, desbideratu zen... Baina ezker abertzale anitza eraiki nahi bada, EA, Alternatiba eta Aralarrek hitz egin behar dute. Lortzen badute benetan hori gauzatzea, ezker abertzale berritu baten aurrean izango gara, eta horrek izugarritzko gaitasuna izango du, baita EAJ gairatzeko ere. Ez badute lortzen, zirkulu berean segituko dugu, biolentziarik gabe bada ere.

### IRA Benetako baten antzekoa izan daiteke hemen?

Bai, izan daiteke. Baina ez da gauza bera izango. IRAren gaitasun militarra izugarria izan da lehergaietan eta armetan, nahiz eta talde txikiak geratu diren, talde oso espezializatuak dira, eta militarki oso azkarrak. Hemen ez dut uste hori dagoenik. Nik benetan uste dut ETAren biolentziaren garaia pasa dela herri honetan. Egon daitezke, Ipar Irlandan bezala, oraindino arazo larriak, baina orokorrean, ezker abertzaleak esan duena esanda, egoerak ez du atzerabiderik.

### PPk Espainiako Gobernuak hartzeak aldatuko al du egoera?

Nire iritzia erabat marjinala da, baina nik segitzen dut defendatzen ezin dela hau konpondu alderdi guztien arteko mahaia osatu gabe, publikoki antolatuta. Nire ustez, lidergo politikoa falta da. Nik ez dakit ezker abertzaleak bihar zer



“PP eta PSOE beste galaxia batean daudela ematen du, iragan hauteskundeetan ostean euren adierazpenak entzunda”.

egingo duen, ezta EAJk ez besteek ere, baina gizarteak behar du hortik pasa, prozesu hori bizi. Gizarteak badauka esperientzia eta gogoia prozesu hori lantzeko, bestela frustrazio bat biziko du, airean geratuko den zeregina da, herri honek politikoki eta psikologikoki behar du mahai hori, eta ez Loiolan edo Ginebran bezala, baizik eta ordezkari politikoez gain gizarteko ordezkariak ere mahaian parte-hartzen. Oraindik ere eskualde pertsona bezala, baina gizarte honek badaki zer nahi duen, badaki espresatzen, hauteskudeetan agertu da hori. Erregearen ipuina errepikatu ez dadin behar dugu prozesu hori. Badakit alderdi nagusiak ez daudela ikuspuntu honekin ados. Iraganeko kontu bezala ikusten dute hau.

### “Gurean geratzen dena barruko arazo bat dela esatea, joan den mendeko iritzi da”

Lidergo politikoa bat behar dela diozu. Pertsona lider bat akaso? Ibarretxe izan zena edo antzekoa?

Ez da pertsona kontua, gehiago da erabakimen politikoa nik uste. Gaitasuna duten pertsonak eta kolektiboak behar dira: “Ni hau defendatzeko prest nago, nahiz eta

hedabideak eta beste sektore asko kontra egon” dioten pertsonak. Ibarretxe hori egin zuen nolabait, batzuek esango dute hura akatsa izan zela. Halere, bizi dugun aldaketa ezin da ulertu orain arte egindako bidean hartu ziren zenbait jarrera hobetsi gabe. Hau da, lidergo bat egon zen hauxe zioena: “Biolentzia kanpo gatazka dago eta eztabaida dago”. Hori galdu egin zen nolabait, baina jarrera horrek posible egin du erregearen kontakizuna irudikatzea. Eta orain egoera aldatu da.

### Beste lidergo bat eratuko da orain, akaso.

Bai, ezker abertzaleak beste bide bat hartu du. Baina, kontuz, ezker abertzaleak protagonismoa berreskuratu duenez, baliteke Espainiako Gobernuak protagonismoa hartu nahi izatea, eta bi aldeen arteko argazki bat lortzen ahalegintzea. Tentazioa hori ere izan daiteke. Ezker abertzaleak, ordea, esan behar du: “Argazkia partekatu egin behar dugu, eta hala ez bada, ez gara egongo”. Izan ere, argazkiak orokorra izan behar du, gizarte osoarena. Osterantzean, betiko akatsa egingo da, betiko arazoetan sartuko gara. ■

**arcia.com** *Pluja Seca* dokumentalari buruzko balorazioa.